euskaldunon Egunkaria
1996ko maiatzak 19, igandea

# Sagardo botila


Ander Gillenea

# Kortxoa kentzeko garaia da



Sagardoa batez ere botilatik edatetik upel artean murgiltzera igaro gara azken urteotan. Baina txotx garaiak hasiera eta amaiera izaten ditu, eta sagardo botilaren sasoiak ez du mugarik. Sagardogintzan aritzen direnek horregatik ikusten dute antza etorkizuna botila formaz. Urteko edozein egunetan kontsumi daitekeen produktua bilakatzen duelako mama gozoa. Hasiak dira guztiak euren lana botilaratzen eta, gure aldetik, lan horren emaitzak bildu ditugu, aurten botilaratutakoa nolakoa den, nola gorde eta kontsumitu behar den, eta zein etorkizun ikusten zaion zehaztu nahian. Zuri dagokizun lan bakarra, sagardo botilari bezalaxe, gehigarri honi kortxoa kentzea da.

Amagoia Iban